



ELKARTASUNAREN EGUZKIAK DIRDIRA EGINGO DU



**2016-APIRILAK-16KO
EKUADORREKO
LURRIKARA DELA-ETA**

2016.eko apirilaren 16an lurrak dar-dar egin zuen

Arratsaldeko 18:58etan, 7'8 magnitudeko lurrikarak Ekuador astindu zuen, kalte izugarriak eta makina bat heriotza eraginez.

Manabí probintziako Iparraldean, Esmeraldaseko Hegoaldean eta Los Ríos probintziako barruti batzuetan egundoko kalteak gertatu ziren. Okerrena ehunka gizon eta emakumek bizia galdu zuela, horretaz gainera, makina bat etxebizitza eta azpiegitura suntsitu zen.

Kaltetutako inguruetan, etxebizitzak txikituta daude; familiak aldi baterako aterpetxeetara eraman dituzte edo herritarrek beraiek hondakinetatik berreskuratutako materialekin (plastikoak, kanberak, egurrezko makilak...) eraikitako lekuetan bizi dira.



Lurrikarak gogor astindu zuen Manabí ingurua, hain zuzen, 45 urtez euskal misiolari taldearen jardunleku eta bizileku izan den ingurua: Pedernales, Jama, San Isidro, San Vicente, Bahía Caráquez.

Euskal eta ekuadortar elizbarrutiak, senide elkartasuna

Bilbao, Donostia eta Gasteizko elizbarrutiok bat eginda gaude Ekuadorrekin eta, bereziki, Manabírekin, 45 urte luzez, Portoviejoko elizbarrutietako elkarteekin bizikide eta lankide izanik, Elizbarrutietako Misioen bitartez ehundu izan den senide hartu-emanari esker. Une hauetan, gure babes eta hurbiltasuna adierazi nahi diegu: misiolari batzuek Ekuador bisitatu zuten maiatzean eta ekainean eta, on Mario gotzaina buru zela, Euskal Elizbarrutietako Misioetako ordezkariak irailaren hasieran egin du bisitaldia.

“Berrogeita hamar segundo ikaragarri izan ziren. Batabatean, dena galdu zuten; asko eta asko ihesi atera zen gauez mendixketarantz, tsunamiaren beldur. Ez zitzairen ezer geratu, ez etxerik, ez argirik, ez urik, ezta telefonorik ere”.

***“Hainbat lagunekin hitz egin nuen eta denei erakutsi nien Manabín urteak igaro zituzten misiolari guztien hurbiltasuna, ardura eta elkartasuna. Urte haietan, benetako familia osatu genuen herri hartako jendearekin”.* (Juan Ramón Etxebarria)**

688 lagun dira lurrikararen eraginez hildakoak.
Gainera, 8 lagun daude desagertuta; 4.859 zauritu;
80 mila desplazatu; 30 mila lagun aterpetxeetan.



Gure elkartasuna, martxan

Euskal elizbarrutiok kanpaina jarri genuen martxan, herri haren oinazea neurri batean arintzeko. Misioek eta Caritasek ahaleginak bildu egin genituen dohaintzak bideratzeko eta erantzuna arina izan zen. Misioak eta elkartasuna eremuko taldeek eta partikularrek, norik bere harri-koskorra ekarri du.

Lurrikarak dagoeneko ez da albiste, baina eragin dituen ondorioak hor daude. Horregatik, kalterik handienak jasan zituzten familien errekonstruzioan laguntze aldera, beraientzat hil edo biziko kontua den alderdiaz, hau da, etxebizitzaz, arduratu nahi dugu.



Senplades delakoak egindako txostenaren arabera, 15.710 hiri-etxebizitza eta 15.710 landa-etxebizitza daude kolapsaturik, 875 eskola, 83 km bide, portua eta aireportua kalteturik. Galerak 3.344 milioi dolarretakoak dira, hau da, BPGaren %3ari dagozkionak.


Laguntzeko proposamena gure aldetik

“Ekuadorreko Manabí probintzian 2016.eko apirilaren 16ko lurrikaran kalteak jasan zituzten herritarrentzako bizileku osasungarri eta seguruak berreraikitzen lagundu”. Etxebizitzak lurrikaren aurkako materialekin, ahal den neurrian inguru berean, kolapsatutako etxebizitzek ez zituztelako eskatutako zehaztapen teknikoak betetzen.

Proposamen honen helburua, **Jama eta Pedernales Kantoietan 110 etxe** berreraikitzen laguntzea da.

Etxebizitzak, bi solairutakoak (54 m²) honako osagaiekin: lurrikaren aurkako metalezko oinarri sendoa, hau da, hormigoi armatuzko plintoetara ainguratutako egitura metalikoa etxeari eusteko. Lehen solairu honetan, hormen estaldurak blokez egindakoak izango dira.

Bigarren solairuak egurrezko egitura izango du zinkez estalita, zurezko zoruak eta hormak banbu-kanaberaz estaliko dira.



Elkarte onuradunak:

Jaman: Don Juan: 22 familia; El Matal: 25 familia;
Tabula: 12 familia; Diez de Agosto: 13 familia; Vigua: 11 familia.

Pedernalesen: La Cabuya: 27 familia.

Guztira, **110 etxebizitza** eta zenbatekoa: 463.100 dolar.



Pedernalesen, gure adiskide Peli Romarateguik egindako murala eta barruko beiratea txiki-txiki eginda geratu dira. Gure utopia askatzailearen sinboloa ziren eta berreraikitzeko asmoa dago.

“Manabí herri bizi eta borrokoatzailea da. Oinarri berriekin eta balio berriekin berreraikitzeko aukera dugu”. (Juan Ramon Etxebarria)

Irizpideak:

Jama eta Pedernaleseko parrokietako parrokoek eta pastoral taldeek egin duten erroldaren emaitza da onuradunen kopurua. Caritas Nazionalek, etxebizitzari dagokionez, ezarritako irizpideen arabera aukeratuko dira familiak:

- Dena galdu izan duten eta ekonomia zein gizarte arloan suspertzeko aukera gutxi duten familiak.
- Beste erakunde batzuetatik laguntzarik jaso ez duten familiak.
- Familia gurasobakarrak.
- Haurdun dauden emakumeak eta adin txikiko haurrak dituztenak.
- Etxeko arduraduna lanik gabe duten familiak.
- Gaitasun berezidun kideak dituzten familiak.

Aipatu dugun etxebizitza horietako bat egiteko, 3.800 euro inguru (4.210 dolar) behar ditugu. Diru hau, egitasmoan aurreikusitako kontzeptuetarako erabiliko da bakar-bakarrik.



EGITASMO HONEKIN BAT EGITERIK NAHI? LAGUN EZAZU!

Egitasmo honekin bakarka zein taldearekin, elkartearekin, ikastetxearekin... bat egin nahi baduzu, behean jasotzen diren kontu-zenbakietan diru-sarrera eginez egin dezakezu. Sarrera egiterakoan, **ETXEBIZITZAK** kontzeptua ipini.

Egitasmo hau zure taldean edo ikastetxean zehatz-mehatz aurkezteko informazio gehiago behar izanez gero, jar zaitez hartu-emanean Bilbao, Donostia edo Gasteizko misioetarako ordezkari zarekin eta atseginez emango dizugu.

Unibertsitatera iristeko ahalegin handia egin duten eta ikasketekin jarraitzeko aukerarik gabe geratu diren Calceta-Manabíko unibertsitateko ikasleentzako bekekin ere lagun dezakezu. Sarrera egiterakoan, **BEKAK** ipini.

EGITASMO HAUETAN LAGUNTZEKO DIRU-SARRERAK EGITEKO KONTU-ZENBAKIAK

BILBAO

FIARE BANCA ÉTICA: ES52 1550 0001 20 0002699726

KUTXABANK: ES02 2095 0119 90 9109118774

LABORAL KUTXA: ES42 3035 0502 88 5020001842

VITORIA-GASTEIZ

FIARE BANCA ÉTICA: ES89 1550 0001 23 0002711620

KUTXABANK: ES97 2095 3150 22 1091093376

LABORAL KUTXA: ES93 3035 0099 73 0991033786

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

KUTXABANK: ES85 2095 5001 07 1062435374

LABORAL KUTXA: ES74 3035 0060 41 0600100001